

EUROPA'REN IZENA

Oraintsu egin do-u Europa alkartearen oiñarria izango dan lege nagusiari buruz auteskundea.

Euskaldunok beti izan -ara Europa-zaleak eta Europa'k e; daroaz gure "gene"ak eta gure izkuntzaren ondakiñak, kromagnon gizona arantza joan zalako eizaketa e-iteko emen izotz-aldia amaitu zanean.

Baiña guk Errien Europa nai dogu, ez laterriena, gaur egin nai daben lez.

Dana dala, gaurko idaz-lan onetan "Europa" itzak zer esan nai dauan eta nondik datorren azalduko dogu.

Orati /Horazio laterazko olerkari nagusiak bere "oda" baten azaltzen dau leienda edo kondaira au.

"Europa" izenak "aurpegi-zabala" esan nai dan.

Gaurko Libano lurraldean e-ozan antziña Tiro eta Sidon uriak, erromatarren sasoia baiño lenago. Andik sortu ebezan Kades edo "Cadiz" eta "Kartago" uriak. Andik etorri ziran feniziarak, abedea, diru-txanponak egi-tea eta itxas-ontzigintza irakatsi euskuenak, eta cero Kartagotarrak. "Puni" deritxen gudetan erromatarrakaz

burruka -ogorak egin bear izan ebezanak. Sidon uri aretan bizi zan errege baten alabear; ipiñi eutsen "Europa" izena, aurpegi-zabala zalako.

Europa neskaitilla oso ederra zan eta Zeuz jainko nagusia matemindu zan beragaz. Artu-emonetan asteko Zeus aundia (Jupiter) zezen biurtu zan eta zezen ori Sidon urira Europa neskeari urreratu jakon. Alkar mosukatu eta gero Europa zezenaren bizkar-gaiñean jarri zan eta orrellan urreratu ziran Kreta izena eukan ugartera. Ori izan zan Europa'ren oztuketa edo "rpto de Europa".

Kreta'n seme-alabak izan ebezan, onein artean bat Minos eta Minos onegandik sortu zan gero Europa izena artuko eban erri-aldea. Orreri esaten jako minotarren eta kretatarren jakintza, "Cultura minoica o Cretense".

Europa andrea eta Zeus Jainko nagusia dira ba, gaurko Europa onen sortzailleak, kondaira edo leienda onek diñoan lez eta ori Erroma Romulo eta Remo'k jrasan baiño lenago.

OLAZAR'tar MARTIN'ek

AFRIKA 8: SAFARIAK

Nork ez dau amets egin Afrika'ko basapiztieneizaketa? Amets ori beteteko tokirik egokiena Nairobi da, antxe batzen dira safari-egilleak ugari.

Erakus-leio edo eskaparateak zizpaz, argazkigailuz, kanpaiñetarako txabolaz, oiñetako egokiz, kapela zabalez beterik aurkituko dozuz eta kaleetan jeep-antzeko gurgildunak, ate ta leiobakoak, atzean eizatuak ekarteko burdixu bat dabela. Inguruko ostatuetan eta kafetegietan narru baltzeko jentea safarirako jantzita, baita safaritik etorri diranak be soiñeko zikin eta tximurtuz jantzita.

Urtero urteten dabe Nairobi'tik milla ta berreun baiño geiago safarik. Eta safaria ezin dabenak baso baltzean iru eguneko ibillaldia egiten dabe.

Safariantzat kanpiñak be ba-dagoz antilopezko egozkaria jateko, kanpoan dauken mai baten.

Baiña gabaz moskitero edo eulizaingailuen barruan egin bear izaten dabe lo. Eta zure albora leoia etorten bada, ez ikaratu. Orrez gaiñera basapiztien ulu zorrotzak ugari entzungo dozuz.

AFRIKA 9: LUR-BARRUA

Afrika lur-barrua edo kontinentea da, munduko lur-barrurik arrotzena ta lilluragarriena, alde batzutan goibelena eta beste batzutan zoragarriena.

An sortu e; zan gizakia, baiña beste lur-barruak baiño gitxiago ezagutzen da Afrika.

Ezbardintasun aundiak ditu lurbarru onek: Erremurik aundiena ta legorrena, baso baltzik aberatsenak, mendi aundiak urte guztian edurrez zurituta.

Suez'eko urbidea ;de-; zanean, Afrika Ugarte biurtuta geratu zan (1869).

Bere zabaltasuna munduaren bostetik bat da eta iparretik egora 8.000 km daukaz, sortadetik sartaldera, barriz, 7.500.

Bertan bakarrik dagoz beste mundu guztian baiño enda geiago: 220 millo; biztanle millaka leiñutan eta 700 m izkuntza.

Langintzarako ola barriak dagoz urietan baiña K.a.'ko oiturak ez dira galdu.

Iñon baiño abere ezbardin geiago daukez.

OLAZAR'tar MARTIN'ek.